

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 57/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

Euskararen ofizialtasunaren araubide juridikoa Espainiako Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean eta Euskararen Foru Arauan ezartzen da.

Konstituzioak 3.2 artikuluan xedatzen duenez, gaztelaniaz gain Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak dira dagozkien autonomia erkidegoetan, bertako estatutuen arabera.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 6. artikuluan dio euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela, eta Euskadiko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Hori bermatzeko, Autonomia Erkidego osoko erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dutela dio, eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Estatutuaren agindu hori garatzeko xedearekin onetsi zen Eusko Legebiltzarrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Bi dira lege horren xede nagusiak: hizkuntza ofizialtasun bikoitza arautzea batetik, eta bestetik, euskararen erabilera normalizatzea; horregatik, bere artikuluetan behin eta berriz agertzen dira botere publikoek dituzten zereginak, euskararen erabilera bermatzeko eta bultzatzeko.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasunak direla eta, jaso behar ziren betekizunak xedatu zituen.

Lege horietan xedatutakoa garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua onetsi zen; haren bidez, euskal herri administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko kontuan hartu beharreko araubide esparru orokorra ezarri zen. Horrez gain, herri administrazio bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onesteko betebeharra xedatu zuen, bai eta planek izan beharreko gutxieneko batzuk ere, besteak beste, herri administrazio bakoitzak euskara zenbait esparrutan nola erabili eta tratatuko duen azalpen zehatza.

Aipatutako arautegia Foru Administrazioa egokitzeko, Batzar Nagusiek 10/1998 Foru Araua onetsi zuten, Arabako Foru Administrazioan eta Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak, 2018ko abenduaren 18an, 63/2018 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onetsi zuen VI. plangintzaldirako (ALHAO, 2018ko abenduaren 28a). Planean ezartzen da V. plangintzaldiko euskara planean zehaztutako hizkuntza irizpideak berrikusi egingo direla eta berridatzi egoki jotzen direnak.

Behin lan horiek guztiak eginda eta langileen ordezkariekin negoziatuta, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean indarrean egongo diren hizkuntza ofizialen erabileraren gaineko irizpideak onetsi behar dira.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Bakarra. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean indarrean egongo diren hizkuntza ofizialen erabileraren gaineko irizpideak:

ARABAKO FORU ALDUNDIKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

86/1997 Dekretuak dio erabilera planetan azalduko dela hizkuntza ofizialak nola tratatu behar diren administrazio esparruetan. Irizpideak ezinbestekoak dira planaren urratsak egiteko eta helburuak lortzeko. Beharrezkoa da langile eta administrazio unitate guztiek jakitea zer egin euskaraz, nola, noiz, norekin...

Ondoren azaltzen diren irizpideen aplikazioan, Euskararen 10/1998 Foru Arauak ezartzen duen eta Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen Erakunde Nortasunaren Eskuliburuak zehazten duen moduan, bi hizkuntza ofizialak erabiltzerakoan euskarari emango zaio lehentasuna.

Besteak beste, ondoko esparruetan ezarriko dira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak; horiek betetzeko ardura gaia dagokion sailarena eta administrazio unitatearena da.

1. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN HARREMAN KOMUNIKATIBOAK

Aldundiak, bere eginkizunak betetzean, hiru harreman mota ditu: herritarrekin eta zerbitzugintzako eragileekin (enpresak, elkarteak, lanbide elkargoak...), beste administrazioekin eta aldundiaren barruan. Hiru harreman mota horiek bai ahoz bai idatziz gauzatzen dira.

Harreman komunikatiboetarako, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten Arabako Foru Aldundiko langileei bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie. Euskara Zerbitzuak laguntza eskainiko die langile horiei (trebakuntza, aholkularitza, kontsultak, zuzenketak...), hala behar izanez gero.

1.1 Ahozko harremanak.

1.1.1 Herritarrekin eta zerbitzugintzako eragileekin (enpresak, elkarteak, elkargoak...)

Aldundira etortzen denari edo telefonoz harremanetan jartzen denari, modu esplizituan eta argi adieraziko zaio nahi duen hizkuntza ofiziala aukera dezakeela aldundiarekiko harremanetan, bide hauetatik:

- Aldundiko langilearen hasierako agurra elebiduna izango da, euskarari lehentasuna emanez; adibidez, Egun on, Buenos días.
- Hizkuntza hautatzeko aukera modu grafikoan adierazteko, txartelak, kartelak... erabiliko dira.

Administratuak euskara hautatzen badu, honela jokatu da:

- Euskaraz jarduteko gaitasuna duen langileak hizkuntza horretan jarraituko du.
- Horretarako gai ez den langilea bere administrazio unitatean indarrean egongo den jendaurreko harremanetarako protokoloari lotuko zaio.

Aldundiko langileek ezin izango diote eskatu administratuari hizkuntza ofizial batean edo bestean jarduteko.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, megafoniaz... eman-dakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, beti hurrenkera horretan, mezu elebiduna izanagatik, argia eta laburra dela ziurtatuz.

1.1.2 EAEko administrazioekin edo EAEn egoitza dutenekin, eta euskarak presentzia duen lurraldeetakoekin.

Aldundiko langilearen hasierako agurra elebiduna izango da euskarari lehentasuna emanez; adibidez, Egun on, Buenos días. Solaskideak euskaraz erantzuten badu, eta langileak euskaraz jarduteko gaitasuna badu, hizkuntza horretan jarraituko du.

Atal elebidunetan eta hizkuntza gaitasunaren aldetik egoera onean dauden administrazio unitateetan ahalegin berezia egingo da administrazioen arteko euskarazko harremanak sustatzeko. Bide horretan, oinarri dira urtez urteko kudeaketa planak, haietan jasotzen baitira hori lortzeko ekintzak eta baliabideak.

1.1.3 Egoitza Estatuko beste tokietan duten administrazioekin.

Normalean harremana gaztelaniaz izango da.

1.1.4 Aldundi barruan.

Aldundi barruko euskarazko komunikazioak errazteko, telefono gidan eta Outlook-eko helbideen zerrendan "eu" adierazgarria agertzen da langileen izenaren ondoan. Horren bidez jakin daiteke norekin dagoen euskaraz komunikatzeko aukera.

Hizkuntza gaitasuna duen langilea lanarekin lotutako ahozko jardunak euskaraz egiten saiatuko da "eu" adierazgarriaz identifikatuta dauden langileekin eta, adierazgarria izan edo ez izan, ezagun badu solaskideak euskaraz badakiela.

Atal elebidunetan eta hizkuntza gaitasunaren aldetik egoera onean dauden administrazio unitateetan ahalegin berezia egingo da gaitasuna duten langileen arteko ahozko jardunak euskaraz izateko. Bide horretan, oinarri dira urtez urteko kudeaketa planak, haietan jasotzen baitira hori lortzeko ekintzak eta baliabideak.

Bestalde, langileari ziurtatuko zaio kontu pertsonaletako ahozko jardunak (nominak, lizentziak eta baimenak, prestakuntza...) nahi duen hizkuntza ofizialean egiteko aukera.

1.2 Idatzizko harremanak.

Aldundiak erabiltzen dituen inprimakiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira, lehentasuna emanez bi hizkuntzak batera agertzen diren moldeari.

Hartzaile askori zuzenduak diren edo hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio idazkiak, edozein dela euskarria, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira.

Idazki elebidunetako hizkuntzen kokapenari dagokionez, dokumentuaren hartzailea edozein dela ere, bi hizkuntza ofizialak batera agertzen direnean, euskara lehenetsiko da hurrenkeran, Euskararen Foru Arauaren 18. artikulua eta Erakundearen Nortasun Liburuaren arabera:

- testua bi zutabetan: ezkerrekoan euskara, eskuinekoan gaztelania.
- testua zeinu batez banatua (|, /): ezkerrean euskara, eskuinean gaztelania.
- testua aurrez aurreko orrialdeetan: eskuinekoetan euskara, ezkerrekoetan gaztelania.
- testua goian-behean: goian euskara, behean gaztelania.

1.2.1 Herritarrekin, zerbitzugintzako eragileekin (enpresak, elkarteak, elkargoak...) eta administrazio hauekin: EAEkoak edo EAEn egoitza dutenak, eta euskarak presentzia duen lurraldeetakoak.

Komunikazioa aldundiak hasten badu, ele bietan bidaliko du idazkia, eta jasotzaileak egiten duen hizkuntza hautuaren arabera jarraituko du harremanarekin.

Komunikazioa AFAtik kanpo hasten bada, komunikazio horretan erabilitako hizkuntzan erantzun du aldundiak, hau da:

- bi hizkuntza ofizialetan jaso bada, ele bietan.
- euskaraz jaso bada, euskara hutsean.
- gaztelaniaz jaso bada, gaztelania hutsean. Ele bietan ere erantzun daiteke, bi kasu hauetan:
a) langileak hizkuntza gaitasun nahikoa izan eta hala erantzun nahi badu, edo b) erantzuna eredu elebidun estandar batean txertatu behar bada.

Dokumentuen hizkuntza gorabehera, horiei erantsita bidaltzen diren txosten teknikoak jatorrizko hizkuntzan bidaliko dira.

Arabako Foru Aldundiak ahalegin berezia egingo du administrazioen arteko idatzizko harremanak euskaraz izan daitezen, solaskideek gaitasuna duten kasuetan. Bide horretan, oinarri dira urtez urteko kudeaketa planak, haietan jasotzen baitira hori lortzeko ekintzak eta baliabideak.

1.2.2 Egoitza Estatuko beste tokietan duten administrazioekin.

Normalean harremana gaztelaniaz izango da.

1.2.3 Aldundi barruan.

Aldundi barruko euskarazko komunikazioak errazteko, telefono gidan eta Outlook-eko helbideen zerrendan "eu" adierazgarria agertzen da langileen izenaren ondoan. Horren bidez jakin daiteke norekin dagoen euskaraz komunikatzeko aukera.

1.2.3.1 Langileen arteko lan harremanak.

Hizkuntza gaitasuna duen langilea lanarekin lotutako idatzizko jardunak euskaraz egiten saiatuko da "eu" adierazgarriaz identifikatuta dauden langileekin eta, adierazgarria izan edo ez izan, ezagun badu solaskidea euskaraz badakiela. Itzulpen zerbitzua ez da arduratuko halako testuak itzultzeaz.

Atal elebidunetan eta hizkuntza gaitasunaren aldetik egoera onean dauden administrazio unitateetan ahalegin berezia egingo da pixkanaka euskara ere lan hizkuntza izan dadin. Bide horretan, oinarri dira urtez urteko kudeaketa planak, haietan jasotzen baitira hori lortzeko ekintzak eta baliabideak.

1.2.3.2 Aldundiaren eta langileen arteko harremanak.

Aldundiak erabiltzen dituen inprimakiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira, lehenetsuna emanez bi hizkuntzak batera agertzen diren moldeari.

Aldundiko langile askori bidalitako mezuak, jakinarazpenak, dokumentuak, abisuak... euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira, lehentasun hurrenkera horretan.

Idazkiaren edukia puntuala bada,

- idazkia ele bietan bidaliko da, ezagutzen ez bada jasotzaileak euskaraz dakien ala ez.
- euskaraz bidaliko da jasotzailea "eu" adierazgarriaz identifikatuta badago edo ezagun bada euskaraz badakiela.

Atal elebidunetan eta hizkuntza gaitasunaren aldetik egoera onean dauden administrazio unitateetan ahalegin berezia egingo da pixkanaka euskara ere lan hizkuntza izan dadin. Bide horretan, oinarri dira urtez urteko kudeaketa planak, haietan jasotzen baitira hori lortzeko ekintzak eta baliabideak.

- Gaztelaniaz bidaliko da ezagun bada jasotzaileak euskaraz ez dakiela.

Jasotzaileak idazkia hizkuntza ofizialeko bakar batean idatzita jaso ondoren adierazten badu bestela jaso nahi duela, aurrerantzean berak nahi duen hizkuntzan bidaliko zaio.

Komunikazioa langileak hasten duenean, hark erabilitako hizkuntzan erantzungo dio aldundiak.

Dokumentuen hizkuntza gorabehera, haiei erantsita bidaltzen diren txosten teknikoak jatorrizko hizkuntzan bidaliko dira.

1.3 Lan bilerak.

Lan bilera antolatzen denean, aldezturik aztertu behar da hizkuntzak nola kudeatuko diren: zein hizkuntzatan egingo diren bilera, bilera deia, dokumentazioa, bestelako euskarriak...

Ahalegin berezia egingo da bilerak euskaraz egin daitezen, parte hartzaile guztiek euskaraz gaitasun nahikoa dutenean. Euskaraz mintzatzeko gai ez direnean, baina ulertzeko gaitasuna badute, bilera euskaraz egiteko ahalegina egingo da, eta parte hartzaile horiek gaztelaniaz hitz egiteko aukera izango dute.

Aktak bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan idatzi eta zabalduko dira.

1.4 Erregistroa.

Dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira Arabako Foru Aldundiko administrazio erregistroetan.

Erregistroa kontsultatu nahi duen herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko, behar denetan, inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da, edozein delarik ere dokumentua inskribatu den hizkuntza ofiziala.

Erregistroari lotutako aplikazio informatikoetan eremu bat egongo da sartzen edo irtetzen den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen jasotzeko.

1.5 Tramitazio elektronikoa.

Erabiltzaileak aukera izango du euskara edo gaztelania hautatzeko tramitazio elektronikoa egiterakoan.

Tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpena edo ziurtapena testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango du ele bietan jasotzeko.

2. ITZULPEN IRIZPIDEAK

Euskara Zerbitzuak itzulpen zerbitzua eskainiko du, eta itzulpen eskaerak egingo dira ItzulpenFlow aplikazioa erabiltzeko eskuliburuan jasotzen diren jarraibideen eta Itzulpenak eta eredu elebidunak eskatzeko prozeduraren arabera.

Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 4.1.d) artikulua betetze aldera, itzulgaiak zuzen eta herritarrek ulertzeko moduan idatziko dira, itzultzailearen lanean eragotzi ez dezan.

Dena den, euskara sortze hizkuntza ere izan dadin sustatuko da; eta, hala, Euskara Zerbitzuak baliabideak jarriko ditu administrazio unitateen eskuan: zuzenketak, kontsultak, eredu elebidunak, trebakuntza, informatikoak...

Horiek horrela, itzultzerak bidali beharrean, testua euskaraz sortzen ahaleginduko dira hauek:

- atal elebidunetan lan egiten duten langileak. Izan ere, atal elebidun horiek dira euskararen erabileraren normalizazio prozesuan aurrera egiteko oinarria; eta oinarri diren aldetik, bereziki eragingo da haietan, sortze lana bideratzeko.

- atal elebidun batean egon ez arren, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak.

Langileok euskaraz sortutako testuak Euskara Zerbitzura bidali ahal izango dira zuzentzeko, eta testu horiek lehentasuna izango dute.

2.1 Aldundiak euskaraz jasotako idazkiak.

Aldundiak kanpotik euskara hutsean jasotzen dituen idazkiak ez dira, besterik gabe, gaztelaniara itzuliko. Egiaztatzen bada administrazio unitatean idazkia aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako hizkuntza gaitasunik agiria bere horretan ulertzeko, edukiaren laburpena egingo dio nahikoa gaitasun duen lankide batek. Ezinbestekoa denean baino ez da itzuliko.

2.2. Kontratutako enpresek egindako lanak.

Aldundiko sailen batek lanen bat (proiektuak, planak, publizitate kanpainak...) egiteko kanpoko enpresaren bat kontratatzen badu eta lan hori EAEko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu behar bada, sailaren ardura izango da enpresari lan hori bi hizkuntzetan aurkezteko eskatzea.

Era berean, aldundiz kanpoko erakunderen batek (udal, kuadrilla, kontzeju...) lanen bat (proiektuak, planak...) egiteko enpresaren bat kontratatzen badu eta lan hori ALHAOn argitaratu behar bada, erakundearen (udal, kuadrilla, kontzeju...) ardura izango da enpresari lan hori bi hizkuntzetan aurkezteko eskatzea.

2.3 Testu bereziak.

Aldundiaren ohiko eta eguneroko jardunarekin zerikusirik ez duten testu bereziak itzultza bidali baino lehen, sail eskatzailea Euskara Zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan, lan hori antolatzeko. Euskara Zerbitzua arduratuko da itzulpen hori kudeatu eta gainbegiratzeaz, eta itzulpenaren kostuak, oro har, sail eskatzaileak ordainduko ditu.

Testu berezi den ala ez erabakitzean zalantzarik badago, Euskara Zerbitzuaren eskumen izango da erabakia hartzea.

2.4 Testu errepikakorrak edo aldaketa gutxikoak.

Behin eta berriro errepikatu eta aldaketa txikiak dituzten testuen kasuan (dirulaguntzak, ebazpenak, deialdietako oinarriak, prentsa oharra, inprimakiak...), aldaketak baino ez dira itzultza bidaliko, testu bakar batean pilatuta. Horrekin batera, erreferentziazko testu gisa dokumentu osoa bidaliko da, aldaketak (itzultza bidalitakoa) beste kolore batez markatuta.

2.5 Aktak.

Aktak bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan idatzi eta zabalduko dira.

3. HIZKUNTZA PAISAIA

3.1 Errotulazio finkoa.

Errotulazio finkoa euskaraz eta gaztelaniaz, zuzen eta egoki, agertuko da.

Aurreko lerroan aipatutakoa betetzeko ardura langintza dagokion administrazio unitatearena izango da, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuak dioena betez.

Euskara Zerbitzuak egiaztatu beharko du errotuluen euskarazko zuzentasuna eta egokitasuna, jarri aurretik.

Zuzen eta egoki ez dauden errotuluak aldatzeko, errotulazioaren ardura duen administrazio unitatearekin zehaztekoa den prozedurari jarraituko zaio.

3.2 Noizbehinkako oharra.

Gehienetan paperean idatzita jartzen diren oharra ere euskaraz eta gaztelaniaz idatzita jarriko dira, hurrenkera horretan, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuak dioena betez. Oharra jartzen duen administrazio unitatearen ardura da hori betetzea. Nahi izanez gero, horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

3.3 Lanari lotutako hizkuntza paisaia.

Lanari lotutako errotulazioa (apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak) euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, oro har.

3.4 Toponimia.

Kartel, seinale, zerrenda, mapetan... toponimoren batek agertu behar badu, administrazio unitateko arduradunak Euskara Zerbitzuari galdetuko dio haren forma egokia.

3.5 Tresneriaren mezuak.

Kafe, edari, janari... makinek, fotokopiagailuek, fitxagailuek eta era guztietako gailu eta tresnek askotan mezu laburrak eta/edo jarraibideak izaten dituzte erabiltzailearentzat. Horiek guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita azalduko zaizkio erabiltzaileari, elebitasunaren aukera duten tresna edo gailuak egon badaudenean.

4. IRUDI KORPORATIBOA

Aldundiaren irudi korporatiboa osatzen duten elementu guztiak ele bietan egongo dira.

Aldundiaren organo, programa, proiektu, jarduera eta ekintzen izen deskribatzaileak elebidunak izango dira.

Euskarazko izen deskribatzaileak zein bereziak Euskara Zerbitzuaren proposamena edo onespena beharko dute.

5. IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

Iragarki ofizialak, publizitatea eta kanpainak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Hala ere, euskara hutsean egingo dira, oro har, hurrei eta gazteei zuzendutakoak, baita hartzaileen ezaguarriek (hizkuntza gaitasuna, esparrua...) eta gaiek hala eskatzen dutenean ere.

Komunikazio Zuzendaritzak eta aldundiko sail eta administrazio unitate guztiek ahaleginak egingo dituzte, nor bere eremuetan, arlo honetan erabiltzen diren testuen egokitasuna, zuzentasuna eta jakitasuna lortzeko, kalitatezkoak eta ulergarriak izan daitezzen. Berezi zainduko da, batetik, kanpainetarako eslogan, lelo eta esaldien sorkuntza prozesua, hasieratik beretik kontuan edukita bi hizkuntzetan izan dezakeen adierazkortasuna, indarra eta erakargarritasuna, eta, bestetik, hitz jokoak baliatuz gero, beste hizkuntzan ere indar bereko edo antzekoak aurkitu, sortu edo asmatzeko aukera.

6. JENDAURREKO EKITALDIAK

Jendaurreko ekitalditzat hartuko dira ekitaldi instituzionalak (prentsaurrekoak, sari banaketak, inaugurazioak...) eta ekitaldi sozialak (mahai inguruak, hitzaldiak, erakusketak, mintegiak, jardunaldi eta biltzarrik, herritarrekiko bilerak, aurkezpen irekiak, ikastaroak...)

Ekitaldien hainbat alderdi (hizlari, entzule eta parte hartzaileen hizkuntza gaitasuna, gaia, materiala...) aintzat hartuta, protokoloak zehaztuko dira haien antolatzaileekin bi hizkuntza ofizialen erabilera zehazteko.

Nolanahi ere, elebitasunaren gutxienekoa bete beharko da: hizkuntzen hurrenkerari dagokionez, lehentasuna emango zaio euskarari publizitatean, megafonian, oharretan, aurkezpenetan...

Arian-arian ekitaldien edukian ere euskarari lekua egiteko urratsak egingo dira: hizlari elebidunak aurkitzen ahalegindu, aldi bereko itzulpenak...

Euskarak lehentasuna izango du hurrei eta gazteei zuzendutako jardueretan.

7. ALDUNDIAREN ESPAZIOAK LAGATZEA

Aldundiak hainbat espazio (Probintzia plaza, Kultura Etxea, museoak...) lagatzen ditu jarduerak egiteko. Haien antolatzaileek ele bietan egingo dituzte jardueren gaineko zabalkundea (iragarkiak, kartelak, liburuxkak...) eta jarduerak egin bitarteko komunikazio orokorrak (megafonia, oharrak, ordutegiak...)

Instalazioak lagatzeko baldintzen artean hizkuntza baldintza horiek txertatuko dira, eta hala adieraziko zaio lagapenaren onuradunari.

8. ARGITALPENAK

Aldundiak euskarri fisikoan eta digitalean argitaratzen dituen programazioak, agendak, eskuorriak, informazio liburuxkak, kartelak, mapak... ele bietan argitaratuko dira.

Argitalpenak liburuak direnean, argitalpenaren ardura duen administrazio unitatea harremanetan jarriko da Euskara Zerbitzuarekin hizkuntza trataera zehazteko. Irizpide hauek hartuko dira kontuan: izaera (zabalkundekoa, espezialitateetakoa eta literatura), hartzaile mota eta aldundiaren partaidetza.

Hizkuntza trataera zehaztuta, administrazio unitatearen ardura izango da argitalpenari hizkuntza trataera hori ematea, diseinua, fotokonposizioa eta inprimatze lana egiten duten edo papera ez bestelako euskarrietan argitaratzeko lana prestatu eta gauzatzen duten eragile guztiei horretarako behar diren aginduak emanez.

Ikuskizun, hitzaldi eta halakoen izenburuak ez dira itzuliko, hau da, egingo diren hizkuntzan mantenduko dira, eta haien inguruko laburpenik edo iruzkinik egiten bada, ele bietan egingo da.

9. INGURUNE DIGITALA

9.1 Intraneta eta webguneak.

Aldundiaren intraneteko eta webguneetako edukiak bi hizkuntza ofizialetan kontsultatzeko moduan egingo dira, edonork modu irekian eskuratzeko informazioa denean.

Eduki horiek aldi berean argitaratuko dira bi hizkuntzetan.

Gaiaren ardura duen administrazio unitatearen erantzukizuna izango da edukiak bi hizkuntza ofizialetan egotea eta zuzentasuna eta egokitasuna zaintzea.

Sailek webguneetara kanpoan sortutako edukiak barneratzen dituztenean, bi hizkuntza ofizialetan kontsultatzeko moduan jarriko dira, hala badaude.

Aldundiaren intranetean eta webguneetan izapideak egin daitezkeenean, euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera egongo da.

Euskarazko orrietan txertatzen diren estekak, aukera dagoen guztietan, euskarazko orrietara bideratuko dira.

Erantsitako dokumentuaren izena dokumentua idatzitako hizkuntzan edo hizkuntzetan idatziko da. Hau da:

- bi hizkuntza ofizialetan idatzita badago, izena ele bietan.
- euskaraz idatzita badago, euskara hutsean.
- gaztelaniaz idatzita badago, gaztelania hutsean.

9.2 Sare sozialak.

Aldundiaren sare sozialetako edukietan elebitasuna bermatu behar da era orekatuan. Edukiak argitaratzen dituen administrazio unitateak izango du hala egitearen ardura.

Testua mezu bakarrean doanean, euskarazko edukia goian idatziko da eta azpian gaztelaniazkoa; bi mezutan doanean, lehenengo gaztelaniazkoa idatziko da, eta, jarraian, euskarazkoa, euskarazkoa lehenago bistaratu dadin.

Aldundiaz kanpoko gaztelaniazko mezu bat aldundiaren kontuan txertatzen denean, euskaraz edo ele bietan gehituko dira haren aurkezpen hitzak.

9.3 Telefono mugikorretako aplikazioak.

Aldundiaren mugikorretarako aplikazioak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira erabilgarri herritarren esku jarri baino lehen.

9.4 Helbide elektronikoak.

Helbide elektronikoak euskara hutsean edo ele bietan sortuko dira. Orain artekoak berrikusi egingo dira eta aldatu, irizpide hori betetzeko aukera dagoen kasuetan.

10. DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak (ALHAO, 2016ko urriaren 28a) haxe xedatzen du 7. artikularen 3. puntuan:

Dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileek kontuan hartuko dute euskararen erabileraren faktorea, Foru Aldundiak euskararen erabilera normalizatzeko onartutako politikaren esparruan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari, euskararen erabilera normalizatzekoari, jarraituz.

Hala, bada, Arabako Foru Aldundiak aintzat hartu beharko du diruz lagunduko dituen jardueretan eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzetan hizkuntzaren erabilerak eragin nabarmena duen, bai eta nori zuzenduak diren ere. Hori eginda, hizkuntza irizpide jakin batzuk finkatu beharko ditu dirulaguntzen oinarrietan, bi hizkuntza ofizialak modu egokian erabiliko direla bermatzeko. Oinarri horiek egiten dituzten sailetakoz zerbitzuek Euskara Zerbitzuaren aholkua jaso dezakete.

Oro har, aldundiaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten onuradunek jarraibide hauek bete beharko dituzte:

- beren jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak nahiz beste edozein euskarri baliatzen dutenek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute hori.
- dirulaguntzaren xedea jarduera ireki bat delarik, edo ekitaldi publiko baten antolakuntza, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute haren zabalkundea.
- aldundiak diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatu beharko da jardueran edota ekitaldian bertan, gutxienez, aurkezpenetan eta agurretan; lehenengo euskaraz egingo da, eta gero gaztelaniaz.
- diruz lagundutako jarduera edo ekitaldiaren hartzaileak haurrak edo gazteak badira, dirulaguntzaren onuradunek euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera bermatu behar diete parte hartzaile horiei.
- diruz lagundutako jarduera edo ekitaldiaren hartzaileak herritarrak badira, dirulaguntzaren onuradunek jarduera edo ekitaldia zein hizkuntzatan egin den adierazi beharko dute, dirulaguntza justifikatzean.

Dirulaguntzen arloan eskumena duten organoek egiaztatu beharko dute onuradunek hizkuntza irizpideak betetzen dituztela eta, hala ez bada, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.

11. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

Arabako Foru Aldundiak kontratu publikoen bidez emandako zerbitzu edo jarduera guztietan, aldundiak berak emanak izango balira bezala jokatu beharko da bi hizkuntza ofizialen trataerari dagokionez.

Kontratazio organoek hizkuntza irizpide orokorren inguruko klausula hau txertatu beharko dute administrazio baldintza partikularren agirietan:

Kontratuaren esleipena jaso duen enpresak eta azpikontratatistak izan daitezkeen horiek kontratua gauzatzean begiratu beharko diote hizkuntza bien, euskararen eta gaztelaniaren, koofizialtasunari eta euren jarduera elebitasun irizpideen eta herritarren hizkuntza eskubideen menpe izango da, horrela zehazten baitute Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, 10/1982 Legeak, euskararen erabilera arautzeko oinarrizkoak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 10/1998 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundian eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak, eta Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko planek.

Kontratu mota eta xedearen arabera, kontratuaren ardura duen administrazio unitateak berariazko klausulak txertatu beharko ditu ezaugarri teknikoen agirian, zeinetan adieraziko baitira esleipendunak bete beharko dituen hizkuntza baldintzak. Administrazio unitateak aholkua eskatu ahal izango dio Euskara Zerbitzuari.

Kontratuaren ardura duen administrazio unitateak egiaztatu beharko du zehaztutako hizkuntza baldintzak betetzen direla zerbitzua edo jarduera ematen denean.

11.1 Zerbitzu kontratuak.

Kontratuaren xedea herritarrei zuzendutako zerbitzua ematea denean, esleipendunak bermatu beharko du euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza izango dela. Beraz, herritarrari zerbitzua nahi duen hizkuntzan jasotzeko aukera ziurtatuko zaio.

Kontratuaren xedea aldundiko langileei zuzendutako zerbitzua bada eta zerbitzuak aldundiko langileekin ahozko edo idatzizko harreman zuzena badakar, aldundiko langileari zerbitzua nahi duen hizkuntzan jasotzeko aukera ziurtatuko zaio.

Kasu bietan, zerbitzu horietarako harremanetan ahoz zein idatziz egingo diren hartzaile jakinik gabeko komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira, lehentasuna euskarari emanez.

Bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko, kontratistak edo azpikontratistak zerbitzua emango duten langileen hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du, ezaugarri teknikoen agirian zehaztutako baldintzen arabera.

Hizkuntza gaitasuna dekretu hauetan jasotzen diren ziurtagirien bidez egiaztatuko da:

- 28/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den Dekretua.

- 187/2017 Dekretua, uztailaren 4koa, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena.

- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.

11.2 Zerbitzu emakidarako kontratuak.

Kontratistak edo azpikontratistak zerbitzu kontratuetan bezala jokatu beharko du hizkuntza ofizialen trataerari dagokionez.

11.3 Obra kontratuak.

Obretan herritarrei begira jarriko diren seinaleak, kartelak, komunikazioak, oharra... bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dira, lehentasuna euskarari emanez.

11.4 Obra emakidarako kontratuak.

Kontratistak edo azpikontratistak obra kontratuetan bezala jokatu beharko du hizkuntza ofizialen trataerari dagokionez.

11.5 Hornidura kontratuak.

Aldundiak eskuratzen dituen produktuek euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dute, kasu hauetan:

- hizkuntza paisaiari eragiten badiote (errotulazioa, janari-edari makinak, langileen arropa...)
- software produktu orokorrak merkatuan euskaraz badaude, erabiltzaileak hizkuntza aukeratzeko moduan jarri behar dira.

11.6 Kontratu txikiak.

Kontratuaren xedea hartu beharko da kontuan, ezaugarri teknikoen agirian esleipendunak bete beharreko hizkuntza baldintzak zehazteko. Kontratuaren ardura duen administrazio unitateak aholkua eskatu ahal izango dio Euskara Zerbitzuari.

12. TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Aldundian erabiltzen diren tresna eta aplikazio informatikoek bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestatuta egon behar dute. Sailak arduratuko dira hori bermatzeaz eta, horrekin batera, hemendik aurrera sortzen diren tresna eta aplikazioetan irizpide hori betetzeaz.

Hasieratik aurreikusiko da aplikazioaren bertsio elebiduna egitea.

Programa informatiko komertzialetan, elebitasunerako aukera ematen dutenak lehenetsiko dira. Arian-arian hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen artean programa horiek euskaraz erabiltzeko urratsak egingo dira. Horretarako prestakuntza eskainiko zaie.

13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA

Arabako Foru Aldundiko langileek prestakuntza nahi duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea dute, baldin eta ikastaroa antolatzeke beharrezko diren interesdunen kopuruak lortzen badira.

Arian-arian hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek ikastaroak euskaraz jasotzeko urratsak egingo dira.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak Idazkaritza Teknikoaren bitartez antolatzen du aldundiko prestakuntza plana. Prestakuntza plan horretan euskarazko gero eta ikastaro gehiago eskainiko dira, eta, betiere, gutxienez plangintzaldian indarrean dagoen derrigortasun indizearen erdia.

Prestakuntza plan orokorretik kanpo ere, aldundiko langileentzat euskarazko berariazko eskaintza antolatuz jarraituko da.

Ikastaroen kudeaketan (ikastaro eskaintza, eskabideak...) beti adieraziko da hizkuntza aldagaia.

14. LANPOSTU BERRIEN HIZKUNTZA BETEKIZUNA

Lanpostu berri bat sortzen denean, hizkuntza gaitasunaren betekizuna bereziki zainduko da hiru kasu hauetan:

- lanpostuak jendaurreko harremana duenean.
- atal elebidun batean kokatuta dagoenean.
- aldundiaren barruan lanpostu estrategikoa denean, harreman sareari begira.

Berdin jokatuko da programako lanpostua bada.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA